Soziolinguistika: oinarrizko testuak

***«Euskara Gaur»*, GAUR sci, LUR ed., Donostia 1971.**

Aspaldiko kontuekin gabiltza ale honetan. Lan agortuak dira eskuarteko hauek, baina euskararen erabilpenari loturik dagoenez ale honetako gure iharduna, dagoenari heldu behar. 1971ko azterketa hau ez da biztanlegoari dagokionez oso zabala, Gipuzkoako bi herri direnez gero ikergai beraiek hitzaurrean azaldu bezala: «(...) Elgoibar eta Errenterian egin behar izan ditugun inkesta batzutan euskerari buruzko zenbait galdera sartu dugu. Konkretuki, herri bakoitzeko Plan de Ordenación Urbana berria prestatzeko beharrezko ziren estudio sozio-ekonomikoak egiterakoan». Honelakoetan beti present dagoen kezka jakin bat ere aurkezten dute; zein ote den alegia inkeste bidezko azterketen fidagarritasuna? Beste edozein ikerbidek baino berma gehiago eskaintzen zien GAUR-ekoei metodo honek gauzakitxuraz eginez gero: «Orain arte GAUR-ek egin dituen lanak pentsa arazitzen daukute inkesta direktoa, are egiaztatu gabea, dela dagoen inbestigazio biderik fidagarriena, ongi eramaten denean behintzat. Inkestatuen egiatasuna kasu gehien gehienetan oso garaia dela, osoa ez denez».

Liburu honetatik axola zaigun atal bakarra 75. orrialdean dagoena da:- «Euskararen enplegu maila». Aldagai jakin eta zehatzen araberako erabilpen-portzentaiak hona ekartzen hasi gabe, ikuspegi orokor bat itxuratzen duen taula aldatuko dugu. Taularen gainekaldeko deituratzat hauxe du: «Elgoibar eta Errenterian euskera erabiltzen duten pertsonen porzentaia, hari buruzko enplegu proporzioaren arauera».

Pertsona portzentaia ---------- Enplegu proportzioa	Elgoibar	Errenteria
Guztira edo ia guztia gaztelaniaz	45,5	78,3
Askozaz gehiago gaztelaniaz euskaraz baino	5,8	5,5
Zerbait gehiago gaztelaniaz	6,6	2,2
Berdin guti gora behera	14,9	5,7
Zerbait gehiago euskaraz	7,4	2,9
Askozaz gehiago euskaraz gaztelaniaz baino	12,1	3,2
Guztia edo ia guztia euskeraz	7,8	2,2
Orotara	100,0	100,0
Inkesta numero absolutuak	2.714	2.773

Euskararen zori soziolinguistikoa jakiteko ikerlari-aitzindari izan genituen GAUR-tarrak hizkuntza honen erabilpen-auzia ezagutzarekin erabat loturik ikusten zuten. Gaur egun, korrelazio hori, zenbait azterpide eta ondoriok auzipean jarria dute jadanik. Mintzaira baten ezagupenak ez bide luke, besterik gabe, noiznahi eta non nahi, hizkuntza horren erabilera martxan jarriko. Ikasten den bigarren edo hirugarren mintzaira hori, gurean euskararekin gerta litekeena (eta, oso oker ez bagaude, gertatzen dena), ez da erabiltzeko ikasten: ikas-prozesuak eta erabilpenaren dinamika, berez, funtsean, ez direlako gauza bera. Nolanahi ere, ez ziren 1971 hartan gauzak honela ikusten, ondorengoak erakusten duenez: «Ohar guzti hauetarik atera daitekeen behin-betiko ondorioa bat bakarra dateke: euskeraren bizitasuna haren ezaguera masiboak bakarrik seguratzen du eta haren bizitzarako neurririk onurakorrenak, ahalik eta pertsona gehienetara hedatzen direnak dira: eskolan ezartze jenerala, alfabetatzea etab».

Baten batek orduko egoera herri horietan zertan den jakin nahirik liburu zahar honetara jo nahi balu, besteak beste, era honetako informazioa erdietsi ahal izango du. Hona: «Elgoibarren eta Errenterian, euskaldunen eta 'euskaldun praktiko'en porzentaia populazio osoari buruz»; «Euskera jakin eta erabili, jakin baina ez erabili eta ez dakiten pertsonak, Elgoibarren eta Errenterian»; euskararen erabilpena 'ezaguera mailaren arauera', 'bizibidearen arauera','maila sozialararen arauera', 'sexoaren arauera', 'adinaren arauera','sorlekuaren arauera'...

«E.I.F.E., Euskararen Irakaskuntza: Faktoreen Eragina», Hizkuntz Politikarako Idazkaritza, Eusko Jaurlaritza, Vitoria-Gasteiz 1986.

Lehendabiziko honetan, bestetan bezala, inkesta soziolinguistiko bat moldatu zen ikastereduen emaitzak zertan ziren jakin asmoz. Guk ez dugu noski asmorik lanok beren luze-zabalean aipatzeko; hemen ere euskararen erabilpenari dagokion bezainbatean baizik ez dugu ihardungo. Eta asmo horrekin ezarriko ditugu inkestako zenbait ondorio.

1986an egindakoan, D ereduari dagokion atalean, gurasoen hizkuntz jokabidea honela zehazten da:

Gurasoen %6 inguru beti euskaraz mintzo zaizkie haurrei».

Gauza jakina denez, ordea, gurasoen arteko hizkuntz harremanetan gauzak aldatu egiten dira; eta alde makurrenera aldatu ere, OHO-ko bi mailotan:

«Baina gurasoen artean hitz egiterakoan beti euskaraz eta gehienetan euskaraz egiten dutenak bilduta ere ez gara iristen %40ra 5.mailan eta are okerrago %30era 2.mailan. Erdaraz beti edo gehienetan aritzen dira gurasoen %50 eta %60 maila horietan»

D ikastereduko erabilpenaren zenbatekoekin amaitu baino lehen, hona hemen ikaskideen arteko ihardunetan nola mamitzen diren bi hizkuntzak:

«Eskolako lagunekin, bai jolasaldian, bai kalean, beti edo gehienetan euskaraz egiten dutenak %60 inguru dira. Beti edo gehienetan erdaraz aritzen direla aitortzen dutenak, berriz %20-25 inguru. Auzoko lagunekin euskararen erabilera jaitsi egiten da %40raino edota gaztelaniarena %45eraino igotzen».

B ikastereduan diharduten ikasleen hizkuntz joeraz ere badator informaziorik, apurragoa bada ere. Hauek beren irakaslearekin, jolasgaraian, ondoko portaera agertzen dute:

Gelako irakaslearekin jolasgaraian beti edo gehienetan erdaraz hitz egiten dutenak %48 dira. Beti edo gehienetan euskaraz %35. Gainerantzekoak bi hizkuntzetan berdintsu».

Pentsatzekoa zenez, B ereduko ikaskideen arteko hizkuntz harremanetan ingurugiroko hizkuntz nagusitasuna gailentzen da:

«Ikasleen artean ere gaztelaniaz egiten da *batipat*»

«E.I.F.E. 2. Euskararen Irakaskuntza: Faktoren Eragina», Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz 1989.

Bigarren ale hau Jim Cummins-en hitzaurre mamitsu batez jantzita dator. Eta, zilegi bekit, 1989ko honetan euskararen erabileraz datozen datu batzuk aurkeztu aurretik, heziketa elebidunaren arloan hain ekarpen baliotsuak gauzatu dituengizon honen ideia pare bat komentatzea.

Lehendabizikoan plangintza ahalmena norena den zehazten digu: «Agintean dagoenak bakarrik bideratu ahal izaten zuen eta izan ohi du normalean, esandako horrexegatik, era bateko edo besteko hizkuntz plangintza: berak arautu izan du hortaz, historian zehar, zein hizkuntza zein funtziotarako indartu eta horrela, bide batez, ekonomia eta politika alorreko aginpidea nola sendotu». Komeniko litzateke geure artean, auzi honi dagokionez, euskararen hizkuntz plangintza ere «agintean dagoenak bakarrik bideratu» dezakeela pentsatzea. Eta, horrenbestez, beste bi ñabardura hauek eranstea: a) «Agintean dagoena» ez dela «Gobernuan dagoena» izaten oro har, eta zer esanik ez erregio-aginte hutsa denean gurean bezala; eta b) «herrierakunde, mobilizazio eta indarrak» zinezko agintegune guztietarik urrunegi daudela horrelakoetan deusik erabakitzeko.

Cummins-en hitzaurretik azpimarratu nahi nuen bigarren ideia A ikastereduari buruz bertan idazten duena da. Hara, esaten duenaren zati bat: «Argi dago orobat, herrialde desberdinetan egindako azterlanen ondorioz, bigarren hizkuntzak soil - soilik asignatura moduan irakatsiz eragin ahula lortzen dela elebitasuna lortzeko xedean. Ikasleek beraiek etsi egiten dute sarri, eta aspertu ere egiten dira, hizkuntza horretan ahoz zein idatziz iharduteko ez bait dira gai bihurtzen ari». A eredua, oraindik irakaskuntzaren hainbat maila eta sektoretan jaun eta jabe ageri zaigun ikasteredua edo, hobeki esan, etsi- eta asperteredua, Euskal Herrian sufritzen dugun demokrazia linguistikoaren agerpen garbia da. Adierazgarria da gure arteko elebidunzale demokratek erdal monolinguismo demokratiko hau irensteko daukaten gibela eta burubidea.

Baina gatozen txoko honi dagokion harira eta gaira. Horrela, 1986-ko inkestako ondorioak aurkezteko erabili dugun prozedura bera hartuko dugu oraingoan ere. D eredukoekin hasiko gara beraz. Eta zehazki "familiako hizkuntza" noiz-zer den eredu horretakoen artean:

«(...) senar-emazte euskaldun horien erdiak inguru beti edo gehienetan euskaraz hitz egiten du. Beti edo gehienetan gaztelaniaz egiten dutenak, berriz, %20 badira. Bi hizkuntzatan berdintsu aritzen direnak ere baditugu tartean. Egoera honetan, aski ezaguna da beren artean eta haurrei euskaraz hitz eginaz iharduten duten senar-emazteen fenomenoa».

Beste alde batetik, "Irakaslearekiko iharduna, gelatik kanpora" delako hizkuntz esparrutxoan, B ikastereduari buruz, antza denez, gauzak onbideratzen hasiak daude:

«Diferentziak nabarmenak dira eredu batetik bestera, baina aipagarria da B ereduan sumatzen den eboluzioa. EIFE-1ean gela hauetan berberetan %23-k bakarrik hitz egiten zuen beti euskaraz irakaslearekin OHO-ko 2. mailan: orain, berriz kopuru hori ia %60ra igo da»

Azkenik, eta "Eskolako lagunekiko iharduna" deritzan hizkuntz ihardunbidean, txostenak hitz hauetan ema-

ten du bere ondorioa:

«Argi ikusten da aldagai honetan gaztelaniaren indar soziologikoa. D ereduan beti euskaraz aritzen direnak erdiak inguru dira. B ereduan gaztelania da nagusi lagunen artean, eta A ereduan hizkuntza bakarra da berau».

«E.I.F.E. 3. Euskararen Irakaskuntza: Faktoreen Eragina», Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz 1990.

Hirugarren ale hau oraindik orain argitaratu berria da. Aurrekoen jarraipidean dator eta ikastereduen emaitzen nondik-norakoak zehazten ditu zenbait xehetasun berri erantsiz. Hitzaurrea Mikel Zalbide-rena da, eta hortik gauzatxo bat nabarmendu gabe, ez genuke aurrera jo nahi erabilpenaren esparruan sartzeko. Zalbidek hiru puntu azpimarratu nahi izan ditu ale honen ondorioen artean, eta lehendabizikoan honako hau dio:

«a) Erdararen ezaguera ez dago inon (ezta etxetik euskaldun diren D ereduko haurrengan ere) benetako arriskuan. (...) Defizitak, eta ez nolanahikoak, euskarazko gaitasunean ageri ohi dira, aldiz, sarrienik: hainbat neska-mutilek euskaraz erraz eta zuzen mintzatzeko ageri dituen traba-eragozpenetan lehen-lehenik, eta idatzizkoetan gero».

Gogoeta gaitzat dugun euskararen erabilpenari buruzko usteak, ustel izan nahiez duten neurrian bederen, egungo zenbait burubidetan diren baino zorrotzagoak izan beharko dute: izan ere, nola arraio bilaka daiteke mintzabide ezaguera-mailan bertan nahikotasun-gradurik ematen ez duenean? Eskolaren euskalduntze-eraginaren egiazko neurria eta indarra zein den gero eta argiago daukagu azken urteotan burutu diren ikerlanen eskutik, eta joera-tendentzia ezin ukatuzkoa da: kultur ideologiazko funtzionamendua duen aparatu honen hizkuntz indarra hizkuntza menderatuaren diglosi egoeraren araberakoa izan ohi da eta, beraz, ezagutza bera ere ezin du ziurtatu horrelako baldintza soziolinguistikoetan.

Horiek horrela, gatozen azken datuak zertan diren ikustera. "Etxeko Hizkuntza" delako atalean ehunekoak honela ageri zaizkigu.

«(...) D ereduan, jasotako erantzunen arabera %60 batek beti edo gehienetan euskaraz hitz egiten du amarekin. Baina B ereduan, eta batipat A ereduan gehien-gehienek gaztelaniaz hitz egiten dute».

Ondoren datorrena "Lagunekin" sailari dagokio. Hemengo hizkuntz joerak zenbateko hauetan adierazten dira:

«D ereduan adin hauetako haurrak euskaraz ari izaten dira normalean eskolako lagunekin. A eredukoak, aldiz, gaztelaniaz; eta B ereduan, gehienek erdaraz egin arren, neurri batean edo bestean euskaraz aritzen direnak ere aurki daitezke. Kaleko lagunekin iharduterakoan gaztelania indartsuago azaltzen da, eta D ereduan euskara hutsez aritzen direnen

portzentaia %40raino jaisten da».

Beste neurri bat eskolumeek irakaslegoarekin erabiltzen duten mintzaera izan ohi da. "Irakaslearekin, gelatik kanpora" deiturapean dagoenean honakoak dira ondorioak:

«D ereduko haurrek euskaraz hitz egiten dute irakaslearekin. A eredukoek, berriz, gaztelaniaz. Azkenik, B-koen artean kasu desberdinak ditugu: erdiak inguru euskaraz egiten du beti, eta gainerakoek neurri desberdinetan. Halere, datu hauek EIFE 1-ekoekin konparatuz gero badirudi joera nabaria dagoela irakaslearen eta haurren arteko erlazioa euskaraz izateko».

Amaitzeko, ikerlana burutu dutenen eskutik, ikastereduen ondoriook hona aldatu nahi genituzke, horietako bakoitzaren mintzamen-kemena zehazten bait dute lerro bakan hauetan: «(...) Halere D eta B ereduen artean bada atal bat orain ere aski adierazgarria dena: mintzamenarena; hots, mintzamen-mailan orain ere alde nabarmena dago B eta D ereduko ikasleen artean».

Goraxeago diotenez, halere, bi ereduon arteko aldea murriztu egin da: «(...)orain lau urte D ereduarekin zuen diferentzia hura laburtu egin da».

NUÑEZ, Luis C.: ***Opresión y defensa del euskera,*** **Txertoa, San Sebastián 1977.**

Liburu honetan ere bada atalburu bat euskararen erabilpenari eskainia, seigarrena hain zuzen ere: «Empleo de euskera». Gure ardura, gaurkoan, erabilpen horren inguruan orain arte egin diren azterketa batzuren aurkezpena egitea denez, gainerako guztia utzi eta gai zehatz honekikora mugatuko gara.

Euskara mintzatuaren egoera eta bere ezaguera bat ez datozenekoa gauza ezaguna da, eta Nuñezek horixe nabarmendu nahi zuen gaiari heldu bezain agudo: «Al estar el euskera en situación discriminada y minorizada, el saberlo no implica ni mucho menos utilizarlo en todas las ocasiones».

Bere lanerako erabili zituen informazio-iturrien artean, Iberplan-ek 1973-an burutu zuen «Situación y perspectivas del País Vasco y Rioja» delako estudioaren barneko inkesta batzuk izan ziren. Orduko euskaldunek euskara norekin erabiltzen zuten, euskara bakarrik nahiz gaztelaniarekin batera; horra galdera bat, eta hona emaitzak ehunekotan:

Bere amarekin	22
Bere aitarekin	19
Bere seme-alabekin	15
Bere ezkontidearekin	13
Bere lagunekin	13
Bere lankideekin	12

Iturri honetaz gain, Foessa-70 izeneko beste estudio bateko portzentaiak ere aipatzen ditu. Ez ditugu hona aldatuko, zeren Iberplan-enak berarenak ere estudio zabalago baten barneko tratamendua jaso zuen eta neurri guztiak hartzea gutxi baldin

bada honelako ikerlanetan, era horretara egiteak baditu berezko baldintzapen estuak. Foessa-70 izenekoan, horretaz aparte, fidagarritasun urriko datuak agertzen ziren Nuñezen ustetan, euskararen erabilpena neurrigabeki garaia zenez.

«Euskaldunzaharrak eta Euskaldunberriak» in *Euskararen borroka*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz 1983.

Eusko Jaurlaritzak 1983-an argitaratu zuen liburu horren barruan dago aipagai dugun artikulua. Artikulu horren deiturak ez du zuzen aditzera ematen gure oraingo gaiaren muina: euskara mintzatuaren erabilpena, alegia. Hain zuzen ere, artikulu berorren bigarren atala dugu berez gaurko iruzkin-gaia: «Euskaldunzahar eta euskaldunberrien hizkuntz erabilera»

Juan Carlos de Silva-ren artikuluak orduko inkesta bat du bere informazio-iturri. Bere lanean zehar datuak eta portzentaiak taxutzerakoan, euskaldun zaharrak (Z) eta berriak (B) erdibiturik aurkezten dizkigu taulagrafikoen bidez. Xehetasunetan barrena abiatu baino lehen, grafiko baten bitartez, euskaldunon joera zertan den agertzen digu hizkuntzak erabiltzeko orduan. Zehazki, deitura honen pean kokaturik: «Egunean zehar euskaraz egiten den denboraren portzentaia». Ez dugu hona hainbat aldagairen araberako ondoriorik aldatuko, baina, besterik ezean, batzuek eta besteek egunaren buruan euskaraz hitz egiten omen duteneko denboraldiarena ezarriko dugu.

Egunean zehar euskaraz egiten den denboraren portzentaia:

Denbora	Z	B
75<	46,5	6,7
50-75	19,1	14,5
25-50	17,2	21,8
<25	12,9	29,7
0	2,7	10,9
ED/EE	1,6	16,4

Ondoren dator, esan bezala, hiru aldagairen araberako hizkuntz erabilpena euskaldungoaren bi taldeon aldetik. Lehendabizikoa gaien arabera taxutua dago. Bigarrenak lagun-solaskidea hartzen du kontutan. Hirugarrena tokiari loturik dator, azkenik.

Egilearen ustez, «euskararen usadioa ahozkoa da nagusiki; sukaldezulora, familiara eta eguneroko lagunartera baztertua dago». Ezkor ageri da, ez erabilpen-eremuei dagokienez soilik, orobat euskaldunberrien mintzamenerako aukera-ahalmenei buruz ere. Bere hitzez adierazteko, hauek «euskaraz jakin badakite, baina ez dute egiten, ezin dute egin»

Joxe Manuel Odriozola